

**EUSKAL ADITZEN HIZTEGI BATERAKO OHAR ZENBAIT**

1976-VI-25

P. Lafitte

Egungo gai hunek hartze lakeen hedadurarik ez diogu emanen. Osoki zabal bagineza, hitzaldia luzegi loakiguke.

Zenbait ohar aski bekizkigu, nolako lanari buruz euskalariak deitu nahi ginituzken erakusteko doia.

Hizkuntza guzietan aditzak ditu emaiten neke gehienak.

Har dezagun frantsesa: aditz frantsesaren morfologiak badu nornakiren izitzekoa: badauzka 96 irabia-joko (cuadro de conjugación). Bainan ez uste izan zazpi mila eta sei ehun forma horiek dakizkienak frantsesa badakiela. Beharrik forma horiek oso gogoan izan gabe, mintza ditake frantsesez, baktuxa dakizkienez baizik ez baita baliatzen. Haatik ezagutzen ditugun formak, ongi mintzatzekotz, ez ditugu nola nahiko erabiltzen: jakin behar dugu modu eta aldi baktuxak noiz nolaku balioak ukan ditzazken, bai eta noiz nolako laguntzailak edo osagailuak on-hartzen dituen.

Ez da beraz harritzeko frantses hizkuntzalariek nahi baitute aditz frantsesaren erakaskuntza errextu.

Entsegu gisa, Larousse Paris-eko liburutegiak argitarat eman du *Dictionnaire des verbes français* par J. eta J.O. Caput. Entsegu bat da. Eskasak baditu han-hemenka. Bainan bidea erakusten du, eta bide horri jarraikiz uste dut ondoko egunetan lan ederrik aterako den sail hortan.

Liburu hori ikertzen ari nintzelarik, bururatu zait euskarak ere on lukeela xede bereko lan zerbait.

Egiturez euskara eta frantsesa desberdinak izanez, ez dut uste Caput bi anaien aurkezpena ongi luaken euskal-aditzarentzat. Nahi-t-ez burtxaturak gintazke sail hurren egokitzerat.

Agian norbaitek aurkituko du asmatu dudan agerbidea baino hoberik.

Anartean huna nola ikus nezaken *Euskal aditzen hiztegia*.

Hastean, aintzin-solasa eta hitz batzuen laburpen zerrenda.

Gero hiru zati.

I—Lehen zatian, *morfologia*: gramatiketan bezalako idatz-joko-taulak; bakutxa bere zenbakiarekin. Aditz frantsesaren morfologia baino biziki laburragoa litake gurea.

II—Bigarren zatian, *moduen* eta *aldien* balioak, hemen ere zenbakiak ezar, behar orduan beien aurkitzea errega izan dadien.

III—Hirugarren zatia izanen da *hiztegi* izena hartze dukeena. Hemen usaiako hiztegi-tako aditzak *abedeka* aurkeztuko dira, A-tik azken Z-erat.

Lehen lerroan agertuko dira, aditzaren erroa edo sustraia, gero aditz-izenaren *te* edo *tze* atzizkia, gero participioa, gero etorkizunaren marka (*ko* edo *en*), azkenean emanen da DU edo DA, erakusteko zoin aditz-laguntzaile eskatzen duen. Aditzak balin badu bere irabiatze bakuna, morfologian daukan zenbakia erroaren ondutik hausitzen da.

Ituna zenbait adibide:

*urrun*, *urruntze*, *urrundu*, *urrunduko*, DU

*Etor* (334), *etort(z)e*, *etorri*, *etorriko*, DA

*jin*, *jite*, *jin*, *jinen* DA

*Eraman*, (423) *eramate*, *eraman*, *eramanen* (gu) DU

*galka*, *galkatze*, *galkatu*, *galkatuko* DU

Bainan aurkezpen labor horren ondotik, joskerak behar ditugu aipatu, eta lau motakoak izan ditzake

a) aditza beharrezko osagailurik gabe dago, nahiz eratzik dakioken aditz-ondo zerbait (construcción absoluta)

Adibidez: *noiz nahi jaten du*.

b) joskera bakun zuzena: osagailu bat nominatiboan jarraikitzen zaio aditzari edo predikado bat.

Adibidez: *liburua hartu du; gizon freskua da*

c) joskera bakun zeharra: osagailu bat badu aditzak, baina ez da nominatibo huts-gira bera, predikadoaz den bezenbatean.

Adibidez: *aitari natorkio; adixkideekin samurtu da*  
*Piarresen kontiak mintzatu dira; aita-  
 tzat daukate.*

d) joskera hainizkuna (múltiple): aditza asko osaigailuz lagundua dago:

Adibidez: *hezur bat eman diogu zakurrari*

Huna *eman* aditza nola agertzen ahal ginuken  
*eman* (342) ama(i)te / *eman* / *emanen*(gu) / DU

Joskera motza: badaki emaiten, ez da zekena; haizeak ematen du; bikotzak ematen dautzun bezala egizu mintzaztean eleak berak ematen du; emak hor!; emazu hortik.

Joskera bakun zuzena: bere liburu guziak eman ditu; zazpi jantziak emanen dituzte; noiz emanen duzu hitzaldia; kasu emazu; 9 urte ematen du.

Joskera bakun zeharria: errege bati eman den bezala; jatera eman; erakusterat eman; edanari emana; emaztetarat emana; aitari ematen dio; dena aita da; emagun egia dela ez denetik nork emanen?; bi gauza horiek elgarri emanak dira.

Joskera hainizkuna: emozu begi egiteko horri; liburua eman diot Pellori; emazu liburua mahainaren gainean; bikia eman ginuen hazitako berex; emagun lege hori beharrezko bezala; haren errana egiaztat eman zuten; gizona murruari kontra ematen dute; haurrik ez eman jostatzen, itsas-hegi hortan: leku gaixtoa da; nori berea eman behar zaio; abisu eman zigun holakorik ez egiteko; ailema denek euskara begira dezagun.

## OLAGINTZAKO ITZAK

1976-VI-25

*J. Garmendia Larrañaga*

## JAUNAK

Eskulangintzari buruz ez naiz idatzi zaarra. Ta orduan esaten genuen gauzetako bat auxe zen: eskulangillea ez dela